



REAL SOCIEDAD DE FVTBOL

Alkate andre agurgarria:

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu, lehenik eta behin, Realarekin beti erakutsi duzuen konpromisoagatik eta, bereziki, Errege Kopako finala dela eta, eman diguzuen babesagatik. Milaka eta milaka gipuzkoarren ametsa egia bihurtu zen gure lurralde osoko ahalegin kolektiboari esker. Eskerrik asko bihotzez.

Banderen jarduera ez zen ekintza sinboliko hutsa izan. Harrotasunez eta energiaz beteriko ekitaldia izan zen gure taldearentzat. Futbolari eta staff teknikoko kide askok 88 udalerrietako banderekin osatutako pasabide hori zeharkatu zutenean sentitu zuten ilusioa harrotzeko eta finalera begira indarrez betetzeko beste arrazoi bat izan zen.

Sevillako partida historikoaren aurreko egunetan, gertu egotea eragozten zuten egoera zailak gorabehera, taldeak une oro sentitu zuen Gipuzkoaren arnasa. Urrutitik konfiantza eta maitasuna helarazi zitzaizkion. Gero, baikortasun hori eta konbentzimendu hori Kartujako berdegunean islatu ziren.

Ikusi ahal izan duzunez, gutun honekin batera zuen udalerriko bandera itzultzen dizugu. Reale Arenan islatu nahi izan dugun irudi batekin batera dator, eta zuen gustuko izatea espero dugu. Titulua elkarrekin ospatzea gustatuko litzaiguke, baina itxaron egin beharko dugu. Berandu baino lehen egingo dugu.

Azkenik, zorionak eman nahi dizkizuegu Koparen ondorengo egunetan Gipuzkoako herri bakoitzean izan den gizabidezko portaeragatik. Ez zen erraza titulu bat irabazi ondoren emozioak kontrolatzea, eta guztion artean beste erantzukizun-lan handi bat egin dugu Gipuzkoan. Harro gaude.

Gora Real! eta gora Gipuzkoa! Eskerrik asko bihotz bihotzez!

Adeitasunez

Jokin Aperribay